DEBA



Goaz taldeko kideak 1995eko abenduaren 30ean estreinatu zen 'Larrialdiak' antzezlana taularatzen. GOAZ

# Mende erdia antzerkizaletasuna eta euskal kultura sustatzen

**Goaz antzerki taldeak lau emanaldiren grabazioak bota eta dokumental bat aurkeztuko du datorren astean bere sorreraren 50. urteurrena ospatzeko**

JABI LEON

DEBA. 1973. urtean Deban eratu zen gazte elkarte baten bueltan sortuta, Goaz antzerki taldeak bere 50. urteurrena ospatuko du datorren astean zehar herritar guztien partaidetzari irekita egongo den egitarau zabal batekin.

Alde batetik, bere sorreratik «euskarazko antzerkizaletasuna eta euskal kultura sustatzea» helburu izan duen taldeak bere ibilbidean sortutako kartelekin, ateratako argazkiekin edota erabilitako jantziekin prestatutako erakusketa egokitu du Kultur Elkartean eta herriko hainbat taberna eta dendetan (ikusgai dago jada).

Bestetik, Goaz taldeak garai ezberdinetan antzeztutako lau emanaldiren grabazioak botako ditu bihartik ostegunera bitartean Kultur Elkartean (emanaldi guztiak 18.30ean hasiko dira). Saio horietan, ikusi ahalko diren antzezlanen idazle edota zuzendariekin solasaldiak egongo dira.

Hasteko, Luis Haranburuk 1982. urtean zuzendu zuen 'Gernika' antzezlanaren grabazioarekin disfrutatu ahalko da bihar. Asteartean, berriz, 'Pernando bizirik hago oraindio' (Xabier Mendiguren, 1992) lanaren txanda izango da; asteazkenean 'Kanika Zuri Beltza' (Goizane Aizpurua, 2006) obra ikusteko parada izango da; eta ostegunean 'Badator' antzezlana (Erika Olaizola, 2021). Grabazio horien emanaldiekin batera, herritarrek Goaz antzerki taldeak bere 50. urteurrenaren harira prestatutako dokumentalarekin gozatzeko aukera izango dute ostiralean, ordu eta leku berean.

Edonola ere, mende erdiko ibilbidea ospatzeko ekintzak ez dira hortan geratuko eta datorren larunbatean Goaz taldeko parte izan diren guztien partaidetzari irekita dauden antzerki-poteoa eta bazkaria izango dira (dagoeneko 70 bat lagunek eman dute izena bazkari horretarako).

Goazeko kidea den Itzale Lakak jakinarazi duenez, Debako antzerki talde amateurrak 1975ean estreinatu zuen 'Senperen gertatua' izeneko bere aurreneko obra eta ordutik 30 ikuskizun ekoiztu eta taularatu ditu. Azkena 2023ko azaroan estreinatu zen eta oraindik biran dabilen 'Lotura basatiak' antzezlana da.

Gaur egun 10 bat lagun daude «osasun egoera ona» duen Goaz taldearen bueltan: «Pozik gaude. Azken antzezlanerako jende gaztea sartu da eta ikusten dugu antzerkigintza amateurrak baduela bere ibilbidea egiten jarraitzeko aukera», azaldu du Lakak berak.

ELGOIBAR

# Se necesitan voluntarios para llevar a cabo la recogida a favor del Banco de Alimentos de los días 22 y 23 de noviembre

J.LEON

ELGOIBAR. El Ayuntamiento y Cruz Roja de Elgoibar han hecho un llamamiento a la ciudadanía para que se anime a participar en la recogida a favor del Banco de Alimentos de Gipuzkoa que se llevará a cabo los próximos días 22 y 23 de noviembre.

Según explican desde ambas entidades, «se organizarán turnos a efectos de cubrir las jornadas del viernes y del sábado»; con la particularidad de que «el horario y el comercio para el turno dependerán del número de personas voluntarias».

Las personas que deseen ayudar al Banco de Alimentos ejerciendo de voluntarias en Elgoibar deberán comunicarlo «cuanto antes» llamando al número de teléfono 943 74 10 50 o acudiendo personalmente al Servicio municipal de Atención a la Ciudadanía (Santa Ana 2, bajo).

Ayuntamiento y Cruz Roja subrayan que «la ayuda del voluntariado es indispensable»; toda vez que «el éxito de la campaña va estrictamente unida a la cantidad de personas voluntarias para poder cubrir todos los comercios y horarios». La pronta disposición de las personas, además, facilitará la gestión.

Este año la recogida a favor del Banco de Alimentos de Gipuzkoa será mixta (la ciudadanía podrá aportar alimentos y adquirir bonos de ayuda en las cajas de los establecimientos participantes) y en Elgoibar se llevará a cabo en los supermercados Mercadona, BM, los dos Eroski de la localidad y por primera vez también en Alcampo.



DV

## El patio de la Herri Eskola, protegido

La constructora Echaide ha culminado las obras promovidas por el Ayuntamiento de Elgoibar para cerrar las fachadas laterales del patio exterior de la Herri Eskola. El proyecto ha tenido un coste de 190.553 euros.

## EN BREVE

MENDARO

### 'Kanpora sartzen' antzezlana, hilaren 15ean

San Agustin kulturguneak Aitziber Garmendiak zuzenduriko 'Kanpora sartzen' antzezlanaren emanaldia hartuko du hilaren 15ean (22.00etan). Bertaratzeko sarrerak dagoeneko eros daitezke (5 eurotan) Morroskillon. Oholtza gainean Xabin Fernandez eta Intza Alkain aktoreak izango dira.

MUTRIKU

### Santo Tomas azokara animaliak eramateko izena eman daiteke jada

Mutrikuko herriak Santo Tomas azokaren edizio berri bat ospatuko du abenduaren 21ean. Hori dela eta, Debemen Debabarreneko landa garapenerako elkarteak jakinarazi du Mutrikuko azokara animaliak eramateko interesa dutenek hilaren 22ra arte dutela izena emateko aukera. Horretarako, debemen@debemen.eus helbidera idatzi edo 943 74 40 67 telefono zenbakira dei egin daiteke.

ELGOIBAR

### Mesa redonda con exjugadores de la Real Sociedad, el martes

La Musika Eskola acogerá el martes (19.30 horas) una mesa redonda organizada por la peña Jo Ta Sua de la Real Sociedad por su 25º aniversario. El acto estará moderado por Jon Gurrutxaga y en él participarán los exjugadores de la Real Markel Bergara e Imanol Agirretxe y la exfutbolista local Yolanda Mateos, que jugó en la selección española y equipos como Eibartarrak, Levante o Sabadell.

ELGOIBAR

### La parlamentaria Nerea Kortajarena hablará este lunes sobre los cuidados

Invitada por la asociación de jubilados y pensionistas Duintasuna de Elgoibar, la parlamentaria de EH Bildu Nerea Kortajarena acudirá este lunes a la Casa de Cultura de Elgoibar para abordar (18.30 horas) el tema de los cuidados. La charla se llevará a cabo bajo el título 'Cuidados: ¿Públicos y comunitarios? Transitando hacia un sistema público comunitario de cuidados'.

ELGOIBAR

### EH Bilduk herri batzarra antolatu du hilaren 13rako Bilgunean

Irailaren 21ean egin zuen konferentzia politikoarekin bere III. Kongresu-prozesuari hasiera eman ondoren, EH Bilduk «oinarrizko ponentziaren tesi nagusia eta gakoak partekatu eta eztabaidatzeko» Elgoibarko herri batzarra egingo du datorren asteazkenean (18.30ean) Bilgunean. EH Bilduren kongresuaren oinarrizko ponentzia Arkaitz Rodriguezek aurkeztuko du.